

JESUS ETA LEHENENGO IKASLEAK

1

Basamurtutik Jesus urtenda
jatsi zan Jordan ertzera,
zeruko Aitak agindu eutsan
erreinua zabaltzera.
Joan haundiak ikusi eban
ta emon eutson antzera:
“Horra Mesias etorri jaku
pekatutik salbatzera;
ea gazteok, joan zaiteze
Beragaz gaurtik aurrera”.

3

Jesus Maixua erdian dala,
hor doaz bakardadera,
otoitz ta lagun-giro gozoan
alkar lagun egitera.
Jesus Maixuak ahal dan ondoen
emon eutsen jakitera:
Zeruko Aitak bialdu eta
zertan datorren lurrera
eta konbite egiten deutse
Berarekin jokatzera.

5

Hau topaketa zoragarria,
hau benetako gaupasa!
Honen ondoren azal hutsa da
mundu guztiko jolasa.
Eta gazteok etxera joanda,
ezin harturik arnasa.
Mesias hau ta, Mesias hori,
ha izan dala demasa...
anai ta guzti Jesusengana
laurak doaz beren kasa.

2

Santiago ta Joan gazteak
dana bertan behera itzi
eta pozetan jarraitu eutsen
aurrera doan Jesusi.
Bere atzetik etorkozala
Jesus kontuan zan jausi:
“Gazteok, noren bila zabilte?”
-“Nun bizi zara, Nagusi?”
Eta Jesusek pozik erantzun:
“Etorri eta ikusi”.

4

Aitatxo gora, Aitatxo behera,
jardun jake pazientziz,
baita gazteok laster jabetu
Mesiasen kontzientziz.
Maixu askotxok Yaberen barri
azaldu eutsen zientziz,
Jesusek, barriz, hitz egiten dau
Aitarene esperientziz;
bizi barri hau ezin da lortu
ez liburuz, ez erentziz.

6

Horra Jesusen ondora batu
lehenengo lau ikasleak,
zumo gozoa nun aurkitzen dan
ondo dakitzu erleak.
Eskola hortan prestatzen doaz
ez maixu irakasleak,
bizi barri hau bizi dabenak
horrek dira autorleak;
beti lez berbak baino gehiago
behar dira seinaleak.